


BERRIGARA

31 zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, irailak 6



Berriro lanera




Oporretan
Nora joan,
bergararrak han



Onartuta
udaleko
aurrekontua



Bergara K.E.
Igotzea
helburu



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa

UNED-BERGARA EUSKAL KULTUR DEPARTAMENTUA


EGA eta Sakontze Maila I-II ikastaroak

Matrikula epea: Irailaren 5etik-27ra

Ordutegia:

- Asteartetik - ostiralera: goizez 10,30 - 12,30
arratsaldez 5 - 8
- Astelena eta larunbata itxita

Tfnoa: 76 13 42



OHARRA: EGako ikastaroak HABEren diru laguntzaz.

UNEDeko HIZKUNTZA ESKOLA

✓ FRANTSESA ETA INGELESA

- Maila guztietan .
- Ezagupen orokorra lortzeko eta (H.E.O. eta Frist Certificate) azterketak prestatzeko.

✓ Kurtso berezia

ENGLISH for the office & SECRETARIAL SKILLS

- IRAKASLEGOA: Irakasle kualifikatuak eta merkatal praktikan adituak.

Informazioa: Tfnoa: 76 13 42. Bergaran UNEDen 3. pisuan.

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

Maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

**Publizitatea eta
harpidetzak:**

Ignazio Irigoien, Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose
Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.
Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi,
Mikel Elkoroberezibar, Josune
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber
Aretxaga eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia: A.

Gallastegi, B. Cantero, M.
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,
Txomin Retolaza, Kifuri eta Pol-
Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa: Txantxangorri
Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunkiz-
unik.



Robin Hood, El Principe de los ladrones ostiraletik astelehenerarte Nove-
dades aretoan. *Bailando con lobos* filmearen
arrakastaren ondoren Kevin Costner Bergarara
itzultzen da Robin Hood-en mitoaz baliatuz.

OSTIRALA

6

- Kontzertua:
- Elorrioko Gaztetxean
Iraultza taldea, 11etan.

LARUNBATA

7

- Kontzertuak:
- Elorrioko Gaztetxean
Fliter, Funts eta Mala Fama 11etan.
- Urretxun Kiroldegian
Celtas Cortos 10.30etan.

- Futbitoa: Txapelketa-
ren hasiera goizeko 9eta-
tik aurrera Labegaraieta-
ko Kiroldegian.

IGANDEA

8

- Futbitoa: Goizeko
9etan hasita Labegaraie-
tako Kiroldegian.
- Jaiak Arraten: Herri-
kirolak, dantzariak, ber-
tsolariak eta erromeria.


*Ondo
para!!*

FARMAZIAK



- 6 Camacho
- 7 Puy
- 8 Puy
- 9 Guallar
- 10 Camacho
- 11 Puy
- 12 Camacho
- 13 Puy

ZINEA



**Robin Hood,
el principe
de los la-
drones**

- *Ostiralean:*
10,30etan
- *Larunbatean eta*
Igandean:
5, 7.30 eta 10.30-
etan.
- *Astelehenean:*
7.30etan.

OGIA



Ogizun

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

iRUDI

Erlojudenda Bitxitegia

San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Billegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

URRATS

Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

Amaitu

zaizkigu oporrak

eta Berrigara indar biziz eta ilusio handiz dator, Nobedadeak ditugu: Bergarako azula izenburuan eta barrukaldean itxuraldaketa nabarmenak.

Argazki eta postalen lehiaketa

amaitzen dago, ez ahaztu. Pilo bat jaso ditugu gure erredazioan, baina oraindik zeurez falta zaigu. Animo, asteartera arte daukazu epea zabalik, eta sekulako sariak!

ONGI ETORRIA izan zaitez beraz irakurle, eta segi gurekin.



• ERITETXEAK

Osasun etxea	76 10 82
Larrialdiak	76 12 94
Arrasateko ospitalea	79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

• DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

• ANBULANTZIAK

Bergaran	76 13 59
Gipuzkoako anbulan.	45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan	78 28 00
------------------	----------

• POLIZIA

Udaltzaingoa	76 14 69
Ertzaintza	76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A.	76 16 46
Taxiak	76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde	76 13 68
Aitonak	76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea	76 39 42
Epaitegia	76 14 72
Kiroldegia	76 56 41
Igerilekuak	76 20 51
Kultur Etxea	76 44 46
IMI	76 55 49

Tiiira ba!

Josu Okina



□ Haurren Jaia

Igande honetan ospatuko da Antzuolan Dantzari Txikien Eguna. Bertan Deba Garaiko dantza taldeek hartuko dute parte eta guztira 300 bat dantzari izango dira igandean Antzuolan. Goizean talde bakoitzak bere dantzak eskeiniko ditu kalejiran eta arratsaldean, talde guztiek batera dantzatuko dute. Musika eta dantza jai giroan gozatzeko aukera paregabea.

□ Aloña txapeldun

Oñatiko Aloña Mendi taldea izan dugu aurtengo Bergarako futbol txapelketaren irabazlea. Final aurrenetan Bergarari 3 eta 0 irabazi ondoren, igandeko finalean penaltietan lortu zuen garaipena Eskoriatzaren aurka, neurketa bina amaituaz.



Tanborrak prest

Oporretatik itzultzea jasangarriagoa izateko hasi gara dagoeneko San Martinetan pentsatzen. Bergarako gazte txoak ere aste honetan hasi dira San Martineko tanborradarako entsaiatzen. Udaletxeko Pleno aretoan 5 eta 14 urte bitarteko ehun bat gazte bildu ziren asteartean San Martin, Altzazu, eta Pertxako martxen lehen akordeak jotzeko

asmoz. Txikien tanborrada San Martin egunean izango da eta ohitura denez, bezperan, nagusien txanda; hauek San Martinen antzezkiuzuna egingo dute tanborrero, fraile, japoniar, abanderrada ta guzti San Martin, Pix Poll, Pol-Pol, Umore-Ona eta Pertxaren martxak joko dituztelarik. Burrundararik ez da faltako aurten ere!

□ Aureskuan

Edu Muruamendiaraz bergararrak Zarauzko Auresku Txapelketaren laugarren edizioa irabazi zuen joan den igandean. Bost dantzari bakarrik aurkeztu arren, maila benetan ona azaldu zuten guztiek eta Edu izan genuen onena agurra, desafioa eta alpagata dantzak kontutan harturik.

□ Mendia Bizirik

Gaurtik igandera bitartean Mendia Bizirik Kolektiboak obserbazio kanpamendu bat antolatu du Nafarroa eta Zaragozaren arteko mugan. Kanpamendu honen helburu nagusia ingurugiroaz gozatu eta, era berean, bertako animalia eta landareen ezagutza sakontzea da.

Bizia ematen

Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak deituta, 40 bat bergarar hurbildu ziren asteazkenean elkarte honek gure herrian duen lokalera odola emateko. Urtean zehar eta hilabetean birritan egiten diren odol emate hauetan guztira 1.400 bergarar inguruk parte hartzen dute. Era berean, nahiz eta oraingoz ez duen odol mota konkreturen beharrik, partehartze gehiago eskatzen du gazteriaren partetik 92an 25 urte beteko dituen Bergarako bulegoak.



Umeak zaintzeko neska euskaldun bat behar da.

Deitu: 76 29 81
Elisabete

Lan eskeintzak

Berrigarak behar du:
Publizitateaz arduratuko den pertsona bat.

Izena ematea eta argibideak:
Errotalde Jauregian
edota 76 03 97 Tfnora.

Kirol Argazkiak

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak Kirol Argazkien lehenengo Lehiaketa antolatu dute. Euskadin bizi diren afizionatu guztiek parte har dezakete eta argazkiak zuribeltzezkoak edota koloretakoak izan daitezke. Lanak udaletxera bertara eramanda edota Udal Kirol Zerbitzura posta zertifikatuz bidali beharko dira azaroaren 21a baino lehen.



Abuztu lasaia

Beroa izan da abuztuko protagonista nagusia, azken 15 urtetako abuztu lehorrena izan baita amaitu berri dena. Lehorra eta lasaia; Ertzantza eta Udaltzaingokoek azaldu digutenez joan den abuztua azken urteetako lasaienatarikoa ere izan bait dugu. Baina zoritxarrez normaltasun horrek etenak izan ditu eta notizia tristeak ere jaso ditugu; ezin ahaztu istripu ezberdinetan joan zaizkigun gazte bergararrak. Goian beude guztiak.



Aurrekontuak onartua

Uztaila amaieran udaletxean eginiko Osoko Bilkuran Udalaren Aurrekontu Orokorra onartu zen. HBk, onarpen hori irailerarte atzeratzea eskatu zuen eta, ez zuen parte hartu azkenengo botazioan, baina EAJ, PSOE eta EEko zinegotzien botuak nahikoak izan ziren 1.575 milioitako presupuesto hori onartzeko; 472 milioi pertsonaleko gastuetara bideratuko dira eta beste 540 milioi inbertsio ezberdinetara, 97 igerilekuen berriztapenera eta 80 azoka berriaren lehen fasera esaterako.

Negu Gorriak

Autobusak antolatu dira *Negu Gorriak* taldeak larunbatean Ezpeletan eskeiniko duen kontzertura joateko. Izenak emateko Arrano, Aldoka-Maldoka eta Gaztetxean.

Saskibaloia

Bergara Kirol Elkarteak gizonzkoen senior taldea osatu du datorren denboraldirako. Hirugarren mailan jokaturiko duen taldearen asmoa mailaz igozte da.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

Gizon Emakume



Irala 2 / Barrenkale 35

GOIERRI
Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

P. MANSO
Optika
OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86



Ibaia zabaltzen

Zubieta kaleko 19. zenbakian zegoen etxea bertan behera bota behar izan zuten orain bi aste Zubieta eta Agorrosingo zubien tartean Deba ibaiaren bideratze lanak egin ahal izateko. Bideratze honen helburu nagusia ur haundiak direnean ibaiak gainezka egin ez dezala litzateke eta hori gauzatzeko Udala, expropiatu ondoren, etxe hori bota beharrean aurkitu da. Urtebeteko lana eta 100 milioi inguruko presupuestoa eskatzen duen obra honek Udalari 21 milioi suposatuko dizkio.

□ Iparraldera

Egoitza elkarteak Iparraldera ibilaldi bat antolatu du irailaren 12rako. Bazkaria Larrun gainean izango da eta joan nahi duten bazkideek 6etatik aurrera eman dezakete izena.

□ Waterpoloia

Irailaren 18tik 29ra bitartean Bergarako igerilekuetan emango den waterpolo ikastarorako izena emateko epea irailaren 13an amaituko da. Plaza mugatuak, 12 urtetik gorakoentzat.

Kilometroak

Kilometrotako eguna ia gainean dugula, egun horretan kolaboratu nahi dutenek izena eman ahal izango dute larunbatean eguerdiko 11etatik ordu bietara bitartean eta igandean 6etatik 9etara Beheko Plazan. Antolatzaileek eginiko kalkuluen arabera, oraindik beste 800 lagun inguru behar dira egun horretan beharrezkoak izango diren 2000 pertsonen kopurura heltzeko.



Kofraixak Osintxun

Oporretatik heldu bezain pronto Osintxuko Kofraixak izan genituen ia bergarar guztion topaleku. Jende ugari, giro aparta ta umore ona ezin falta auzo horretako jaietan; osintxuarrek disfraz karrera, dantzaldiak, asto lasterketa, krossa, herri bazkaria...eta ekintza abar luze bat izan zuten lau egunez. Goizaldean ohizko salda hartu zutenek ere aurtengoan ere zoragarri zegoela aitortu digute. Kofraixetan izan behar!

ZUNBELTZ

Kafetegia

S. Arrieta Enparantza
BERGARA

MAHER Biltegiak L.E. Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin erazten du:
1991-92 ikasturterako matrikulazio-epaia
zabalik dagoela

Espezialitateak:

- ZIENTZIAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.
Ordutegia: 9.00-13.00

Bildu dudan sortatxotik...

Atzekoz aurre

Antonio Urzelai

Herri guztietan, betidanik, sortu izan dira pertsona herrikoiko edo popularrak. Batzuek, intelijentzi argikoak, beren inguruko bizilagunei gogoz barre eragin dietenak. Beste batzuek, halako trikimailu moduko esan ezinakin, atzekoz aurre, mintzatzen zirenak; baina, era berean, irripar eta algara handiak zabaltzen zituztenak. Guztiak, nahiz bata nahiz beste, benetan eginkizun bikaina bete zutela ezin genezake ukatu. Gizarte askoren barnean, goibeldurik edo ezertarako gogo gabe agertzen ziranentzako, jainkoak bidalitako mirari bat bezala zan.

Gaur hemen dakarkizuedan pertsonaia, atzekoz aurre, mintzatzen zan horretariko bat duzue. Hortaz, gogoratu nahi dizuet, Euskal Herriari badugula esaera ezaguna, gai honekin zerikusirik duena:

« Baserritarrari, ez begira bakarrik zer esaten deutzun; baizik eta, zer nahi duen esan »

Esaera hori kontutan eduki behar zan, Domingo, gure ezagunari, hitz egin eta harremanetan jartzera koan.

Domingo, baserri langintza eta piontzan aritzen zan, normalki. Lan orduetatik kanpo, «Inparnupeko» tabernan jolasten zan bere lagunekin. Hemen bazeukan bere gogoko talde bat eta berarekin egiten zituan ibilaldi eta bidaiak batzuek. Hortarako, larunbatero, erreal bana ematen zuten kutxara, aurrez izendatzen zituzten jaiak ospatzeko.

Heldu zan Arrateko Amaren eguna, urteroko ospakizuna. Hartu zuten geltokian trena, Maltzagaraino. Hemendik gora, Arratera. Ardo batzuk probatu zituzten eta heldu



Hor, bizkai aldeko eibartar txotxolo bat etorri jatak eta etxostak ba esan nik daukaten tonto aurpegi honekin nola arriskatu naizen Arratera etorten?

ziren plaza ertzera. Han zegoen Domingo, trikitalariei eta dantzarietara begira. Etorten jako gizezko bat ondora eta esan eutzon zerbait belarri.

Hitzetik hortzera, borrokan hasi ziran biak. Izugarritzko iskanbila sortu zuten bertan eta erromeria ere gelditu.

Batu ziran Domingoren lagun danak eta apur bat lasaituta ikustean, galdetu zioten zer gertatu zitzaion borrokan egiteko.

Hara, lagunei begiratuaz, esan eutzen:

«Hor, Biskai aldeko eibartar txotxolo bat etorri jatak eta etxostak ba esan nik daukaten tonto aurpegi honekin nola arriskatu naizen Arratera etorten?. Jo juat ezkerakin begionduan eta kale!. Eskerrak, segidan ihes egin dabena, emongo najotzan beste bat lehengo lekuan».

Esan dizuedan bezala, Domingo, «Inpernupé» tabernako bezeroa zan. Ardoa ere gustatzen zitzaion eta inoiz, behar baino gehituago edan ere bai.

Ilunabarra zen eta jaiki zenean, Domingo, konturatu zen bere hanka azpiak biribildurik zeuzkala. Etxeruntz abiatu zen begiramen guztiekin, zalaparta batzuk atera zituen bidean baina osorik erretiratu zen.

Hurrengo egunean, bera ondo ezagutzen zuen taldeko batek, galdetu zion Domingori:

- Atzo, zer?

- Atzo?, « Bostek eta litro ».

Urte asko igaro dira hau gertatu zenetik honuntz, baina oraindik ez du inork jakin, bost lagun artean edan zuten litro bat, edo, Domingok, berak bakarrik, edan zituen bost.



**KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate 1
BERGARA**

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Oporretan bergararrak mundu zabalean

Aurten abuztuan sekula baino jende gutxiago ibili dela diote Bergaran gelditu direnek. Geratu direnak, gainera, egun osorako edo eta arratsaldea pasatzera hara eta hona mugitu omen dira. Herria ia hutsik laga dugu. Gehienak, horrela egiaztatu digute bidaia agentzietan, estatutik zehar ibili gara. Baina era berean, gero eta gehiago dira oporrek pasatzera atzerrira doazenak.

Bergararrak kontserbadore xamarrak omen gara bidai-tokia aukeratzekoan, denak ibiltzen omen gara leku berdintsuetatik. Atzerrira irtenda ere gehienak Karibe, Britainiar irlak, Europako Iparraldea eta Afrikako Iparraldea bisitatu ditugu.

Kolpearen testigu

Kontuak kontu ez dira asko izango Mijail Gorbachov-en aurkako kolpea Sobiet Batasunean bertan bizi izan dutenak. Julian Iparragirre antzuolarra, bere osaba-

rekin batera Moskura abiatu zen abuztuan oporrek pasatzera eta buruzagi sobietarra boteretik kentzeko ahaleginaren testigu izan zen. Abuztuaren 19an estatu kolpearen notizia mundu osoan zabaldu zenean, Julian eta bere osaba Moskun aurkitzen ziren: "tankeak kalean ikusi genituen baina maniobra normalak zirelakoan ginen, hurrengo egunean goizeko zortziretan estatu kolpea egon zela enteratu ginen arte. Egun horretan Kremlina bisitatzera joan behar ginen eta ez genuen batere oztoporik izan. Arratsaldean berriz, kale batzuk moz-



Julian Iparragirre eta bere osabak Sobiet Batasunean igaro dute abuztua.

tu zituzten. Egia esan ez genuen kalean ezer berezirik somatu, mitinak eta jende pilaketak bai, baina ez inolako istilurik. Batzuk dena den, larriturik enbajadara jo zuten".

Julian eta bere osaba bidaia agentzia baten birtartez joan ziren oporretara. Madriden hegazkina hartu eta zuzenean Moskura. Leningrado eta Kiev ere bisitatu dituzte.

ORTZI
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

ayastury

Barrenkale 30
Tfnoa: 76 11 31

Jantzidenda

Hamar egun 150.000 pezetagaitik: "hotela eta janariak ordainduta geneuzkan eta horrez gain ez zegoen ezer askotan dirua gastatzeko aukerarik".


Triste xamarra iruditu zaie Sobiet Batasuna gure bidaiariei, "hemengo hiriak alaiagoak dira, eska-

Aurtengo abuztuan Mediterraneoan zehar kruzero bat egiteko aukera izan du bergarar bikote batek ●

parateetan eta kaleetan argi gehiago dago hemen, biziagoak dira hemengo kaleak". Baina toki politak ere ikusi dituzte, "batez ere Leningrado". Oporrak gustora igaro dituztela aitortzen dute, eta gainera abuztuan informazio gune bihurtu den herrialdean izan dira. Ezer gehiago eskatu dai-teke?...

Oporrak itsasoan

Telesail ospetsu haren ikusi genituen antzekoak bizi izan dituzte opor hauetan Miren Gurutze eta Jabi bergararrak. Kruzero bat egitea oso garestia dela entzun



Berrigara astekaria bergararron eskutik Afrika beltzeraino heldu da.

izan dugu beti, eta horrela da.

Aipatu bikoteak, ordea, gutariko edozeinek

amestu zezakeen bidaia hutsaren truke egiteko aukera izan du. Izan ere, Miren Gurutzek ETBko

Txandaka lehiaketan parte hartu eta bi bidaia eta telebista bat irabazi zituen. Gauzak horrela aurtengo abuztuan Ausonia itsasuntzian Mediterraneoan zehar kruzero bat egiteko aukera izan du bergarar bikoteak.

Bartzelonan itsasoratu eta astebete igaro dute Frantzia, Italia eta Greziako itsaso bazterrak bisitatzen: "ahal genuen tokitatik kruzeroan ibiltzeko eskatzen diren jantzi elegantek lortu ditugu eta primeran pasatu dugu lujoz beteriko bidaia honetan".



Edurne Garzia Venezuela eta Dominikar Errepublika bisitatu ditu

**LONBIDE
OINETAKOAK**



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

**ONENA
TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

Santiagora oinez

Miren Gurutzek eta Jabik kruzero bat egiteko aukera izan badute ere, beste bi bergarrek, era ezberdin batean bada ere, aurrekoak bezain ondo igaro dituzte aurtengo

Urtero-urtero gehiago dira Santiagoko bidea oinez egiten dutenak, lagunak egiteko era ona da

oporrak. Hauei, Donibane Garazin hasi eta Santiago de Compostelara rainoko bidea oinez egitea bururatu zitzaizen: 827



Motxilak gainean hartu eta Donibane Garazitik Santiagoraino oinez.

km 25 egunetan. Oinetan arazoak izan eta bero galantak pasa dituzten arren, Nafarroako, Castellako eta Galiziarako paisaia ederrak inork baino hobeto ezagutzeko aukera izan dute. "Urtero, urtero gehiago dira Santiagoko bidea oinez egiten dutenak, lagunak egiteko era ona da. Gu heldu xamarrek gara eta azkenerrako gogorra egin zaigu baina gazte ugari dabil bidean, gero eta gehiago». Egunean 40 km inguru betetzeko 10 ordutako ibilaldia egiten zuten eta lo berriz, ahal zuten tokian, "albergeetan, elizpeetan, hoteletan..., kamino bazterretan ere sarri». Hilaren 25ean Santiagora heldu ziren eta ituzlerra hegazkinez egiteko asmoa bazeukaten ere, Bilborainoko hegaldian tokirik ez eta, autobusean etorri behar izan



Oporrak itsasoan..., telebistan bezala.

zuten. Hauen antzera beste bergar batzuk ere Santiagoko bidea egin dute aurtan, baina bizikletan. 12 egun behar izan dute Orreagan hasi eta Galiziaraino heltzeko.

Afrika beltzean

Badira mendebaldeko bizimodua ahaztu nahian, Afrika aldera jo dutenak ere. Mikel, Aintzane, Mikel eta Mirianek Madridenten abioia hartu eta Frankfurt-eraino eta handik Nairobira (Kenia) zuzenean jo zuten abuztuan oporrak igaro asmoz. "Keniak Europako edozein hirirekin antzekotasun haundiak baditu ere, kalean kontrastea nabaria da. Turistentzat eraikitako hotel haundien artean, kalean bertakoak oinutzik ikusten dituzu. Keniarrak turistentzat bizi dira, oso


jatorrak dira, edozertarako prest daude beti".

Nairobin hiruzpalau egun egin ondoren safari batetan hamar egun igaro zuten, Masai-mala tribuarekin harremanetan jartzeko aukera izan zutelarik.

Derrigorrezko txertoak hartuz gero inolako gaixotasunik hartzeko arriskurik ez dagoela azaldu digu laukoteak: "irten baino hilabete lehenahor sukarak horiaren aurkako txertoa hartu behar duzu, gero beste pastilla batzuk malariaren kontrakoak...".

Bidaia agentzia baten bitartez igaro dituzte oporrak, baina berriro bueltatuko balira euren kontura joango liratekela uste dute, "hango bizimodua eta tokiak sakinago ezagutzeko".

Euskalduna Taberna
OSINTXU



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

CAMACHO

**DROGERIA
USAINDEGIA**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

ETXE- -AUNDI

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



BERGARA


Tfnoa: 76 25 99

Zer nolako giroa egon da abuztuan Bergaran?



Arazeli Baeza
33 urte, sokorrista

Jende asko ibili da igerilekuetan, batez ere jende nagusia. Gazteak astebukaeretan beste norabait aldegiten zuten.




Jose Mari Chimeno
37 urte, tabernaria

Inoiz baino makalago. Goizetan jendea ikusten zen baina gauetan baterez. Asteburuetan gutxiago, jendea jaietara joan delako.



Ramon Etxeberria
62 urte, langilea

Lanean egon arren astebukaeretan Errioxara joan gara. Nahiago dut oporrak beste hil baten hartzea, lasaiago.



M. Angeles De la Granja
60 urte, dendaria

Hilabete oso trankila izanda. Dendan asko nabarituda, beste urtetan baino gehiago.

MABER GIMNASIA - ETXEA

Kulturismoa

Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa

Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak

Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak

URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!!


Zuzendaritza: MARTIN BERROYA EGAÑA

(Euskadiko Kulturismo Txapelduna)

Koldo Elizalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA



Aupa Gudaris!

Abuztua aprobetxatuz, Madrileko Carabanchelen dagoen Jose Luis Loidi bisitatu nuen. Loidi, HBko zinegotzi ohia bera, martxoan atxilotu zuten epailearen aurrera azaldu zenean. Orduetik hona, sei hilabete dagoeneko, inork ez du demostratu bergarra ezereen errudun denik, baina han daukate epaiketaren zai eta kristonak pasatzen. Ez da kasu bakarra, baina memoria txarra dutenentzat gauzak nola dauden gogoratzeke balio dezake.

Goizeko hamarretarako Carabanchel aurrean geunden, beste toki eta beste era batzutan joandako familiarrekin bilduta. Hamabi t'erdietan oraindik gartzela aurrean geunden, bi ordu t'erdia zutik iraganda noski, eta eguzkipean. Lehen aldiz bisitara joanda zen bat, harrirituta: "Baina, nola liteke? Zer kostatzen zaie jezarleku batzuk jartzea?". Gartzela barrura sartu ginenean mutil haren harridura bikoiztu egin zen. Izan ere, bisitak irauntzen dituen berrogei minutuetan bi pertsona sartzen ez diren tokian lau sartzera behartzen gaituzte. Txikia izateaz gain, aurrean dagoena ez entzuteko baldintza guztiak betetzen ditu toki horrek, eta azken bisitan ez ikusteko baldintzak ere betetzen zituen, arnasaren lurrunez ia ez genuen elkar ikusten eta.

Bisita amaitu zen, Loidi moral handiz ikusi genuen... eta gure laguna oraindik harrirituta zegoen. "Hemendik kristo guztia pasatu beharko litzateke, nolakoa den ikusteko". "Bada pentsa ezak hi! -esan nionkanpotik goazenok gartzela nolakoa denaren usaia besterik ez diagu hartzen, hoiek bizi egin behar ditek". Lehen aldiz etorri nintzenean, leihoetatik agurtzen ari ginela, "Aupa gudaris!" oihukatu zuen preso batek. "Gu gudariak? txikito, gudariak zuek".

Beñardo Kortabarria



Esperientzia berri bat

Unibertsitateari buruz eta gehien bat bertan egin dudan nire lehenengo kurtsoko esperientziak idaztea otu zait.

Unibertsitatera joatea beste mundutxo batetara joatea bezala izan da. Maisuak, ikaskideak, denak dira ezezagunak. Ehun eta hirurogei pertsonatako ikasgela batetan piskat beldurtuta, galdua bezala sentitzen nintzen. Baina binakako idaz-mahaietan geunden guztiok sentitzen genuen gauza bera eta lehenengo asterako egin genuen lagun taldea.

Hortaz aparte hiri ezezagun batetan etxetik kanpo bizitzeak ere hasieran nuen beldurra edo urduritasuna areagotu egiten zuen.

Baina berritasun horrek sorturiko ikara segituan ahazten da eta hortik aurrera berritasun izateari uzten dio. Konturatzeko zarenarako kurtsoa pasatu da (aurtengoa gainera oso konfliktiboa erretore eta irakasle asoziatuen amaigabeko gatazkak direla medio), azterketak gainean eta apunte pila bat ikasteko; eta hori bai dela hori.

Baina karrera gustokoa bada eta inguruko jendea jatorra, ez dago inungo arazorik aurrera egiteko, baina asko ikasiz, noski.

Monika Belastegi



91-92 matrikula epea zabalik

IKASLE ARITU ETA BERRIENTZAT

Bulego orduak: irailaren 13rarte: 16- 19

17tik aurrera: 10-12'30 / 16-19

School of English

EMAN IZENA PLAZAK AMAITU AURRETIK!!

Ibargarai 31,

Tfnoa: 76 03 53

BERGARA

BATXILERGO INSTITUTUA

Matrikula zabalik 13rarte.

Orduak 9etatik 14etara..

Tfnoa: 76 31 42, BERGARA

HALTZARI

Fagor altzarien banatzailea.

Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa. 76 30 57 BERGARA

ERREKI

Erretegia

Berezitasunak:

Bixigua eta txuletak

Fraiskozuri Enparantza

Tfnoa: 76 38 51

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

Zeuk galde



31. Zer egin behar da umea adoptatzeko?


Egia esanda Gipuzkoan umea adoptatzea guztiz gauza zaila da gaur egunean, joan deneko pare bat urtetik hona oso ume gutxi bait dago adoptatzeko. Une honetan urte mordoxka pasa beharra izaten da haurra lortzeko. Kontutan izan behar da, gainera, umea hartzean bi gurasoek 43 urte baino gutxiago izan behar dutela.

Edozein modutan ere, informazio gehiago lortzeko edo eskabidea egiteko Gipuzkoako Diputaziora edo Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzura jo behar da.

Estatuko beste probintzia batzutatik ekarri nahi izanez gero, probintzia horietako Diputazioetara jo behar da eta atzerriko estatuaren batetik ekarri nahi izanez gero, estatu horretako kontsulatuarekin jarri behar da harremanetan.

□ Kirofanotik bueltan

Don Pedro Santa Marinako abadeak kiroyfanotik pasa behar izan zuen abuztuaren 16an hiru urtetik hona daraman *markapasosak* fallo txiki bat zuelako; ez zion bihotzari kontraiziñoak behar bezala egiten uzten eta anestesia lokalez operatu zuten *markapasosean* zenbait aldaketa egiteko. Medikuak eta Don Pedrok berriketa batean pasa zuten hiru orduko operazioa. Dirudienez, medikuak halako batean zera bota zion: "*Han goian lagunak baldin badituzu behintzat ez da arazorik egongo*". Eta honen erantzuna ez zen makala izan: "*Karo baietz, neure tokiaua atean daukat*".



□ Euskara ikastera

Astelehenean Mariaren Lagundiko OHOeko 8. mailako 12 neska-mutil Astigarragako barnetegi batera joan zitzaizkigun euskera ikasteko asmoz. Aurrerantzean beraien ikasketak euskaraz bakarrik egin behar dituzten ikasle hauek irten aurretik erretratatu genituen.

MUGICA

Burdindegia

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA


GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34



Zorionez, Don Pedro jadanik gure artean dugu eta ia guztiz errekuiperatuta dago.




Zertan dihardute ba?

ION ALTUNA, "OXAN"



Egin egunkariko Bergarako berriematea, joan den astetik Eibar futbol taldearen partiduak zuzenean ematen ditu Euskadi Irratian. 24 urte ditu eta azken urtea ikasten ari da Leioako Informazio Zientzietako Fakultatean.


JOSE MARI ZEZEAGA



Uberako 29 urteko pilotariak Donostia Hiria binakako pilota txapelketa irabazi zuen joan den ostiralean Vergara II. arekin batera Anoetan. Bi pilotariek errez nagusitu zitzaizkien Eugi eta Arretxeri 22 eta 16 partidu polita eskeiniz.


□ Ikerlana

Bergarako Udalaren enkarguz UNED eta EHUko zenbait irakaslek bi urtetik hona Bergararen iragana eta orainaren inguruan burututako ikerlanek argia ikusiko dute datorren ostiralean. Jesus Arpalek egingo du bilduma osatzen duten 9 tomoen aurkezpena Udaletxean 7etatik aurrera emango duen hitzaldian.




BERGARA: HIRIA ERDI AROAN

Amaia Basterretxea



FS
oto sistema



Tfnoa: 76 00 50

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

Tfnoa: 76 00 50



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1


Hau dok barreguria

Bazan beñ beti jaleo billa ibiltzen zan kerten majadero bat, aritza bezalakoxe mutikotia bera. Behiñ tabernan zeuan mutil txiki, argal, baketsun batekin sartu zan:

- Hi, aizkora-mutur, hik begiratu egin dostak. Kabuen zortzi! Hori etxotsat nere amari be permititzen!

- Nik hiri begiratu...

- Bai, urten kanpora, bi ostixa emun bihar dostat eta.



- Bi ostixa? Hi ez hago burutik sano, lenengua-kin lurrian najaok eta.

Despistau famia beste batzuk pe badaukagu, baiña munduko despistaurik haundiña Plaentzian bizi zan. Ohitura hau ei zeukan hartuta: gabero gabero, lotaratu aurretik, ohia zabaltze ei zeban, gero bentanara urten eta handik begira zigarrua erre patxaraz patxaraz. Akabautakuan, zigarro-mutxikiña erre kara bota eta ohera eitten zeban salto buruz behera eta lo seko gelditze zan. Egun baten zabaltzen dau ohia, urtetzen dau bentanara, erretzen dau zigarrua... botatzen dau zigarro-mutxikiña ohera eta salto buruz behera erre kara. Holaxe hil ei zan munduko despistaurik haundiña.

J.M. Elexpuru

Afrikako istorixak

Eztakigu egixak izango dien plaentziar harek kon-tatzen zittuanak, baiña Afrikan safaritan ibillitakotzat agertzen eban bere burua.

Iluntze baten hola kon-tatzen zotsan lagun bati Afrikako istorixak?

... bai, bai, bazkaltzen gendela uste barik agertu jakuan tigre bat. Igesai emon eta haura zuen perra hotsa. Ahal ebanak ahal eban lekura. Sekula ezittuk nere hankak hain lejerrak izan. Haura zuan aintxintxiketia. Basamortuak jota hegatzadan pasatzen najittuan. Ondo probau najuan nere junturak eneuzkala uste bezain sorrak. Aillegau nitzuan mendixa sei metruan ebagitta zeuan leku batera eta salto egifaz justu justuan obatu najotsan bestekaldeko hegalai eta pultsuan igo bihar izan najuan.

- Eta tigría?

- Berriz be bestaldia hartu nebanian etxando tximistas jarraitu najuan arro batetik bera. Aintxintxika joan eta joan ninddoiala ibai bat azaldu jatan aurrian eta igarixan pasau nintzuan kokodri loik zeuan ala ez begiratzeko asti barik.

- Eta tigría?

- Ibaixan mendixan hartu nebanian bizkor altzau najittuan hankok mendixan gora. Egundoko paretia igo behar izan najuan jausiko ez jausiko, eta horraittio osasunakin hartu najuan paretia gaiña.

- Eta tigría?

- Zer edok hori! Beti: "eta tigría, eta tigría, eta tigría!" Hi noren alde hago, nere alde ala tigrían alde?

J.M. Elexpuru



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.

Artekale 29. Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

GAZTELV S.A.

Burdindegia

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Gaspar

Jatetxea, Txokolategia, Self Service-a

Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

Bergara K.E.: igotzea helburu

Iaz galdutako kategoria errekeruperatze-ko asmoarekin duela aste pare bat Bergarako futbol taldearen aurkezpena izan genuen Agorrosinen. Alex Garitano buru duen direktibak eta Juan Luis Arregi entrenatzaileak bertako jokalariz eta zenbait fitxaketa berri osatutako ekipoa antolatu dute, azken urteetan bezala gartzetasuna nagusi delarik.

Joan zen urteko ekipotik Ibon Agirre, Enrike Nieto (biak Aretxabale-tara), Alatz Larrañaga (taldez aldatu nahirik) eta erretiratutako Igor Unzurrunzaga eta Asier Alberdi baja izan dira. Fitxaketa berriei dagokienez, aipatzekoak dira Amaiak Bat taldetik etorritako Jorge Mendoza



eta Oskar Igarza eta Aretxabaleatik etorritako Luciano Guisado eta, horrez gain, jubeniletik igotako Aser Polvorosa, Zigor Ena, Asier Murua-mendiaraz eta futbolera bueltatzen den Pepe Vallejos.

Helburua, esan bezala, lehen bait lehen aurreneko postuetara iritsi eta liga amaieran igoera lortu. «Taldearentzat beharrezkoa da gainera», esaten du Alex Garitanok, «teorian behintzat badugu gorago egoteko taldea baina ez da erreza izango. 12 milioitako presupuesto ba-

tekin (5 futbolera bideratzen dira) printzipioz ekipogorrena izan arren beste denak bezala egin beharko

dugu lan».

Gogor egin beharko du lan bai gure ekipoa eta Agorrosinen futbol ona ikustea ere eskertzekoa litzateke. Arregik esaten duen bezala, «ilusioarekin hasi gara eta 22an liga hasten denerako ekipoa gora egingo duela espero dut. Fitxajeak? Nik uste beharrezkoak zirela ekipoa kompetentzia sortarazteko». Liga hasteko puntuan dagoenean, denboraldi hasiera honetan finkatutako asmoak betetzea besterik ez da falta.

**'Fitxajeak
beharrezkoak
ziren
ekipoan
kompetentzia
sortarazteko'**

J. L. Arregi

**'Printzipioz
ekipo fuerteena
gara baina,
gogor egin be-
harko dugu
lan'**

A. Garitano

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den guztia*

Ibargaral 10,
Tfnoa: 76 38 32



Umore Ona elkarteko hasierako bazkideak

Berrogeitalau urte dira erretratuan agertzen den gazte kuadrilak Umore Ona elkartea sortu zuenetik. Hori ospatzeko, 1947ko uztailaren 14ean Gernikara bidaia egin zuten eta bidaia aprobetxatuz argazki hau atera zuten Beheko Plazan, «Vinagres»-en taberna famatua (sasoi hartako kafeterixarik onenetakoa) atzean zutela.

Bergarako elkarterik zaharrenetarikoa den honek Ramon Azpeitia izan zuen lehenengo presidentea eta bertako sozioek izan duten musikazaletasunagatik nabarmendu izan da.

Fotografian datozen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Joseba Latorre, Andres Agirre, Jesus Urkiola, Jose Mari Gallastegi, Patxi Azkarate, Jesus Berroia, Fernando Errasti, Pantaleon Oregi, Ignazio Madinabeitia, Juan Mari Aspiazu, Victor Gallastegi, Ramon Azpeitia, Periko Seminario, Jose Erdabide, Higinio Agirre, Luis Agirre eta Elorza.

Jarrita: Bixente Okina, Jose Mari Artola, Pablo Zabaljauregi, Jesus Sanchez, Agustin Lamariano, Jose Mari Arana, Roman Mugica, Migel Oianguren, Xabier Lizarralde, Andoni Ugalde, Jenaro Suinaga. Argazkian ez dagoena Pilar Suinaga da, Aizkarreneko tabernakua, «ohorezko bazkide» zutena.

Estepan Plazaola

Argazkia: Jesus Urkiola



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen dut Martokuan. 761460
- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 20etatik aurrera 764252
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisua alkilatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

LANA

- Neska euskaldun bat behar da etxeko lanetarako. Mesedez fundamentoduna. Deitu: 7601-80
- Neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 762512
- Umeak zaintzeko neska euskaldun bat behar da. Deitu: 762981. Elisabet.

DENETARIK

- Funda azuldun be-taurreko graduatuak aurkitu dira Ariznoa kalean. Deitu: 76 15 36

SALDUEROS

- 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. Tfnoa: 761201.
- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12
- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.
- Reflecta Diamator AF diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.
- Hiru urte dituen Mobylette bat salgai. Prezio ona. 763276.

- 7 pertsonarentzako algodoizko kanping bat salgai. Prezioa 6.000 pzata. 761634 Arantzagatik galdetu.
- Vespa 200a salgai, egoera onean. Prezioa 180.000 pzata. Deitu 7616-39 tfno.ra.
- Karabana berri-berria salgai. Deitu: 761388

Oporretan hildakoak

Ignacio Javier Aizpurua Agirre, 29 urte
 Ignacio Iturbe Maiztegi, 65 urte
 J.M. Okina Sansamendi, 75 urte
 Vicente Sanchez Cantero, 19 urte
 Elgidio Torres San Miguel
 Ana Maria Rodriguez Garcia, 30 urte
 Antonio Madariaga Gallastegi
 Serafina Alberdi Bastida
 Juana Ibañez Ibañez
 Damiana Purificacion Elkoru Ugarte
 Jose laskurain Zabaleta
 Pello Elkoroiribe Garitano, 21 urte
 Juan Roman Albeniz
 Patricio Ibarrola Albeniz
 Pedro Garmendia Iriarte
 Evarista Uribesalgo Gorostiza
 Jose Ignacio Hermosilla Calvo, 21 urte

VICENTE SANCHEZ CANTERO



Vicente, joan zinen baina guretzat ez zara sekula hilko, zure barrea eta zure irudia gurekin daude betiko.



Zure lagunak eta sendiak gogoan zaitugu

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

ETXAGI
Jafetxea

Afariak - Bataioak
 Jaunartzeak
 Eguneko menua
 Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



Kiñu



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA